EUSKARAREN GAITASUN-MAILAK EGIAZTATZEKO PROBAK INPRIMATZEA, DIGITALIZATZEA ETA OPTIKOKI IRAKURTZEA 2026, 2027 URTEETARAKO

1.- TESTUINGURUA

HABEren eginkizunetako bat da euskararen erabilerarekin loturiko gaitasun- eta atalase-mailak egiaztatzen dituzten ziurtagiri ofizialak erdiesteko prozedurak arautzea.

Arlo horretan, HABEk urtero hiru deialdi-mota antolatzen ditu, baina ondoren zehazten diren bi deialdietatik eratorritako lanak soilik dira kontratazio honen xede:

- Euskaltegietako ikasleentzako deialdia
- Deialdi irekia

Urteko deialdi horietako bakoitzean bi azterketaldi edo egiaztapen-aldi izaten dira:

- Udaberriko azterketaldia
- Udazkeneko azterketaldia

Azterketaldi bakoitzean HEOCaren araberako honako maila hauek egiaztatzen dira:

- B1 maila
- B2 maila
- C1 maila
- C2 maila

Parte-hartzaile (hemendik aurrera *azterketari*) bakoitzak honako proba hauek egin behar ditu euskaltegietako ikasleen deialdiko egiaztatze-prozeduran (egiaztatu beharreko maila bakoitzeko):

- Idazmen-proba
- Mintzamen-proba

Deialdi irekian, azterketari bakoitzak honako proba hauek egin behar ditu:

- Irakurmen-proba
- Idazmen-proba
- Entzumen-proba
- Mintzamen-proba

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduan xedatutakoaren arabera, bermatuko da, batetik, idatzizko egiaztapen-proben zuzenketa anonimoa, eta, bestetik, azterketa-egileak eskubidea izango du bere espedientean sartzeko.

Deialdi irekiko proba osoaren adibideak ikusteko, klikatu hemen.

HABE

2.- KONTRATATUTAKO PRESTAZIOAREN HELBURUA

Kontratu honen xedea da HABEk 2026 eta 2027rako deitutako deialdietan egingo diren egiaztatze-probetan jasotako idatzizko probak inprimatzea eta digitalizatzea, eta irakurmen-probak optikoki irakurtzea, bai eta proba horiek jaso eta plegu honetan adierazitako destinoetara garraiatzea ere, aurreko atalean deskribatutako antolamenduaren eta ondorengo ataletan ezarritako baldintza teknikoen arabera.

Lanen egikaritze-faseak honela laburtu daitezke:

- Udaberriko eta udazkeneko azterketaldi bakoitzaren hasieran, idazmen- eta irakurmen-proben enuntziatuak eta erantzun-orriak inprimatuko dira, bi deialdi motetan (irakurmen-probak deialdi irekian soilik egiten ditu HABEk). Halaber, azterketariek azterketa-egunean mahai gainean aurkituko dituzten ohar-orriak ere inprimatuko dira.
- Probak egin ondoren, digitalizatu egingo dira.
- Jarraian, irakurmen-probak zuzenduko dira, azterketarien erantzun-orriak optikoki irakurriz, HABEk kontratistari azterketa egin ondoren bidaliko dizkion emaitza zuzenetan oinarrituta.
- Idazmen-proba eta irakurmen-proba digitalizatuak HABEri helaraziko zaizkio, irakurmen-proben emaitzekin batera (XML formatu jakin batean, azterketariek hautatutako erantzun guztien zerrenda, ariketa bakoitzeko kalifikazio partzialak eta azken kalifikazioa dituena).
- Ondoren (aztertzaileek eta epaimahaiek idazmen-probak zuzentzen dituzten bitartean), mintzamen-proben enuntziatuak (fitxak) inprimatuko dira, baita, deialdi irekiaren kasuan, entzumen-proben enuntziatuak eta erantzun-orriak ere. Fase honetan, halaber, ahozko probara joateko aukera duten azterketarien datu pertsonalak eta proba horretarako hitzordua jasotzen dituzten identifikazio-orriak inprimatuko dira (HABEk bidalitako datuen bidez).
- Entzumen-probak egin ondoren, digitalizatu egingo dira.
- Ondoren, enpresa esleipendunak entzumen-probak zuzenduko ditu, erantzun-orrien irakurketa optikoaren bidez, HABEk kontratistari azterketa egin ondoren bidaliko dizkion emaitza zuzenenetan oinarrituta.
- Entzumen-proba digitalizatuak HABEri helaraziko zaizkio, entzumen-proben emaitzen batera (XML formatu jakin batean, azterketariek hautatutako erantzun guztien zerrenda, ariketa bakoitzeko kalifikazio partzialak eta azken kalifikazioa dituena).

3.- PRESTAZIOAREN EDUKIA

3.1- Inprimatze-lanak

Prestazioa datza probak egiteko behar diren orrialde guztiak inprimatzean, hala dagozkienak barra-kodea dutela orrialde bakoitzean. Halaber, aztertoki bakoitzaren antolamenduaren arabera, inpresio-lanak multzokatu eta aztertokietara banatu behar dira (Araba, Bizkai eta Gipuzkoaz kanpoko probarik balego, HABEren Donostiako egoitzara).

Masterrak diseinatzaileak sortutako inprentarako PDF formatuko artxiboak izango dira.

IRAKURMENA ETA IDAZMENA

A) Erantzuteko orriak

Oro har, 90 g-ko Offset papera erabiliko da, A4 tamainakoa, eta 4+1 tintaz inprimatuko dira. Orrialde guztien atzeko aldean ur-marka bat egongo da inprimatuta, eta azterketa bakoitzari dagozkion orriak ezkerreko goiko ertzean grapatuta multzokatuko dira.

Azterketa bakoitzak hainbat orri izango ditu:

- 1. orria: azterketariek beren izen-abizenak eta sinadura jartzeko identifikazio-orria (orri hori kendu egiten da azterketaren hasieran, eta ez da eskaneatzera bidaltzen).
- 2. orria (DEIALDI IREKIAN): irakurmen-probaren erantzuteko orria (irakurgailu optikoaren bidez irakurtzeko aurrez diseinatutako txantiloi-orriak).
- Gainerako orriak (DEIALDI IREKIAN, 3. orritik aurrera; euskaltegietako ikasleen deialdian, 2. orritik aurrera): idazmen-proba egiteko orriak.

Erantzuteko orri guztiek barra-kode bana behar dute inprimatuta:

- 1. orriak (identifikazio-orriak) oinarrizko 9 karaktere izango ditu:
    - Lehen 2 karaktereak: urtearen azken bi digituak dira.
    - 3. karakterea: urteko azterketaldia adierazten duen zenbakia da.
    - 4. karakterea: maila adierazten duen zenbakia (B1: 1; B2: 2; C1: 3; C2: 4).
    - 5 – 9 karaktereak: azterketaren kodea.
    - Gainera, barra-kodearen azpian, 5 – 9 karaktereak inprimatuko dira, letra lodiz.



- Gainerako orriek 11 karaktereko barra-kodea izango dute:
    - Oinarrizko 9 karaktereak.
    - 10 – 11. karaktereak: orrialde-zenbakia adierazteko 2 digitu.



Deialdi irekian, 2. orrialdeak ‘00’ orrialde-zenbakia izango du, eta, hala, idazmen-proba egiteko lehendabiziko orriak ‘01’ orri-kodea izango du, deialdi mota edozein delarik ere. Azterketaren kodifikazioari dagozkion zenbakiak banaketa jakina izango dute deialdiaren, aztertokiaren edo azterketaldiaren arabera.

Barra-kodearen letra tipoa “C39HrP36DmTt” da, eta orrialdearen eskuinaldeko goiko ertzean inprimatu behar da, zenbaki korrelatiboekin (jauzirik gabe).

1. taulan, inprimatu beharreko orrien multzo bakoitza osatzen duten atal bakoitzaren orri kopurua ageri da (kontuan izanda HABEk, euskaltegiko ikasleen deialdirako, ez duela irakurmen-probarik egiten, orrialde bat gutxiago izango dute euskaltegiko ikasleen deialdikoek, deialdi irekikoek baino). Baliteke datozen urteetan bitartekaritza-ariketa bat eranstea mailaren bateko idazmen-probari (2024an, C2

mailan sartu zen). Horregatik, kontratua gauzatzen den bitartean edo, hala badagokio, kontratua luzatzen den bitartean, baliteke erantzun-liburuxkaren orri-kopurua aldatzea mailaren batean, Administrazio Baldintza Berezien Agirian horretarako ezarritako prezioen arabera.

MAILA	ID-ORRIA	IRAKURMEN-PROBA	IDAZMEN-PROBA
B1	1	1	2
B2	1	1	3
C1	1	1	4
C2	1	1	8

EUSKALTEGIETAKO IKASLEEN DEIALDIA	**DEIALDI IREKIA**
3	4
4	5
5	6
9	10

1. taula Erantzuteko orrien multzo bakoitza osatzen duten proba bakoitzaren orri kopurua (ezkerrean) eta erantzuteko orrien orri kopurua osoa, deialdika (eskuinean), mailaren arabera.

Erantzuteko orrietan inprimatu beharreko barra-kodeak sortzeko, lurralde/maila/deialdi bakoitzeko azterketari matrikulatuen kopuruak bidaliko dira inprimategira (badaezpadako marjina batekin).

B) <u>Enuntziatuak</u>

Oro har, 90 g-ko Offset papera erabiliko da, liburuxkak itxita A4 tamaina duela (berez, erditik tolestu eta bizkarrean bi grapaz josítako A3ak izango dira), eta 4+4 tintaz inprimatuko dira (azterketen enuntziatuek ez dute barra-koderik inprimatuta, denak berdinak dira).

2. taulan, enuntziatuaren atal bakoitzaren orrialde kopurua ageri da, baita deialdi bakoitzerako liburuxkak duen orrialde kopuru osoa ere (“AZALA II” irakurmen-proba dagoenean bakarrik jarri behar da; alegia, deialdi irekian). A3ko orriekin egin beharreko liburuxkak direnez, 4ren multiploa izan behar du deialdiko orrialde kopuru osoak (C2ri dagokionez, deialdi irekiko bertsioak A4 tamainako 7 orrialde izango lituzkeenez, azal gehigarri bat ezarriko zaio, 4ren multiplo izan dadin; taulan: ‘*’ batez).

MAILA	AZALA	IRAKURMEN-PROBA	AZALA II	IDAZMEN-PROBA
B1	1	7	1	3
B2	1	7	1	3
C1	1	7	1	3
C2	1 (+ 1*)	2	1	3

EUSKALTEGIETAKO IKASLEEN DEIALDIA	**DEIALDI IREKIA**
4	12
4	12
4	12
4	8*

2. taula Enuntziatu bakoitza osatzen duten proba bakoitzaren orrialde kopurua (ezkerrean) eta enuntziatu bakoitzaren orrialde kopuru osoa, deialdika (eskuinean), mailaren arabera

Enuntziatuen kasuan ere, baliteke datozen urteetan, mailaren batean, idatzizko adierazpen-probetan bitartekaritza-ariketa bat txertatzea (2024an C2n txertatu zen modu berean). Horregatik, kontratua gauzatzen den bitartean edo, hala badagokio, kontratua luzatzen den bitartean, mailaren batean enuntziatuetako orrialdeen kopurua alda liteke, Administrazio Baldintza Berezien Agirian horretarako ezarritako prezioen arabera.

HABE

Inprimatutako enuntziatuak eta erantzuteko orriak, hiru lurraldeetan entregatu beharko dira, mailaka eta multzotan troxatuta (lurralde-arduradun bakoitzak eskatutako ale kopurutan), kaxatan eta zehaztutako datetan.

Inprimatze-lanen kopuru zehatzak matrikulazio-epeak amaitzean zehazten badira ere, azken urteotako esperientziak adierazten du urte batetik bestera ez dela alde esanguratsurik suertatzen. Inprimatzen den azterketa kopurua, matrikulazio-kopurua baino % 10 - 15 handiagoa izan ohi da, suerta daitezkeen edozein gorabeherari aurre egiteko. Erreferentzia gisa, hona 2025 urteko matrikula kopuruak (idazmen-proba salbuetsita dutenen kopuruak kenduta, ez baitute idatzizko probarik egin behar):

2025eko 1. azterketaldia (2025-1)

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE-TIK KANPO	GUZTIRA
Euskaltegietako ikasleen deialdia	B1	171	827	296		**1.294**
	B2	339	2.177	680		**3.196**
	C1	848	3.106	2.232		**6.186**
	C2	99	297	281		**677**
Deialdi irekia	B1	143	276	74	4	**497**
	B2	402	834	311	14	**1.561**
	C1	724	1.182	1.199	36	**3.141**
	C2	44	68	47	2	**161**
Guztira		**2.770**	**8.767**	**5.120**	**56**	**16.713**

2025eko 2. azterketaldia (2025-2)

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE-TIK KANPO	GUZTIRA
Euskaltegietako ikasleen deialdia	B1	48	211	72		**331**
	B2	149	868	240		**1.257**
	C1	553	1.919	995		**3.467**
	C2	48	129	155		**332**
Deialdi irekia	B1	54	129	29	3	**215**
	B2	242	486	119	11	**858**
	C1	446	815	653	22	**1.936**
	C2	17	47	37	7	**108**
Guztira		**1.557**	**4.604**	**2.300**	**43**	**8.504**

Azterketa-ereduei dagokienez, deialdi/maila bakoitzean bana egon ohi da (euskaltegietako ikasleen deialdiko C1eko azterketan izan ezik, non bi eredu behar izaten baitira —eta baliteke, salbuespenez, beste txandaren batean ere behar izatea—). Eta kontuan izan behar da Madrileko eta Bartzelonako (eta, bi urtean behin, Buenos Airesko) azterketak ere ez direla beti Araba, Bizkai eta Gipuzkoakoekin gainjartzen eta, beraz, eredu desberdinak egon litezkeela aztertoki haietarako (EAEtik kanpoko deialdi horietan azterketari kopurua txikia izanik ere).

Horrez gainera, behar bereziak dituzten kolektibo batzuentzat ere desberdin maketatutako ereduak emango dira, PDF formatuan (mendebaldeko euskarazkoak, behar bereziak dituztenenak eta abarrenak). Gaur-gaurkoz, 300 azterketari inguru dira horiek guztiak.

C) Azalpen-orriak

Bozgorailu bidez emango diren azalpenak orri banatan emango zaizkie azterketariei, A4 tamainako 90 g-ko Offset paperean eta 1+1 tintaz inprimatuta. Gaur gaurkoz, bertsio desberdinak daude euskaltegietako ikasleen deialdirako eta deialdi irekirako, baita C2rako ere. Taulatik erauz daitekeenez, 2025ean kopuru hauek behar izan dira: 16.713 kopia, 1. azterketaldian; 8.504 kopia, 2. azterketaldian.

ENTZUMENA ETA MINTZAMENA

A) Ahozko probetarako identifikazio-orriak

Ahozko probetara aurkeztuko diren azterketari guztiei identifikazio-orri bana ematen zaie. Han, azterketariari eta ahozko probarako hitzorduari buruzko datuak ageri dira, baita azterketariari dagokion mailako ebaluazio-irizpideak eta haien ponderazioak ere (deialdi irekikoen kasuan, entzumen-probaren erantzuteko orriarekin grapatuta ematen zaie azterketariei). HABEk mintzamen-probetako txanda-aldaketak kudeatu eta hurrengo egunean osatzen ditu identifikazio-orriak sortu ahal izateko datu-baseak, eta horiek bidaliko litzaizkioke enpresa esleipendunari.

2025-1

MAILA	Euskaltegiko ikasleen deialdia	HOBE deialdia	Deialdi irekia	Deialdi irekia (EAEtik kanpokoak)	**GUZTIRA**
B1	1.149	2	281	4	**1.436**
B2	2.470	17	762	8	**3.257**
C1	2.577	47	1.119	16	**3.759**
C2	190	13	34	0	**237**
GUZTIRA	6.386	79	2.196	28	**8.689**

2025-2

MAILA	Euskaltegiko ikasleen deialdia	HOBE deialdia	Deialdi irekia	Deialdi irekia (EAEtik kanpokoak)	**GUZTIRA**
B1	405	1	165	3	**574**
B2	1.099	18	649	9	**1.775**
C1	1.364	20	922	14	**2.320**
C2	82	12	24	4	**122**
GUZTIRA	2.950	51	1.760	30	**4.791**

B) Mintzamen-probetarako fitxak

Azterketaldi bakoitzean, 100 eredu desberdin inguru izaten dira maila guztiak kontuan izanda, eta eredu bakoitzetik 50 eta 200 kopia artean inprimatu behar izaten dira. Kopia horiek euskaltegietako ikasleen deialdirako eta deialdi irekirako egiten dira (HOBE deialdikoek, orain arte, euskaltegietako ikasleen deialdikoekin batera egiten dute mintzamen-proba, baina baliteke datozen urteetan aparte egitea).

2025ean, 14.234 kopia atera ziren 1. azterketaldian, eta 8.696 kopia bigarrenean; guztira, 22.930 orrialde inprimatu dira 4 koloretan (aztertzailearen eta azterketariaren fitxak alde bakarretik inprimatuta; elkarrerageneko fitxak, berriz, bi aldetatik: 4+4 tintaz), 200 g-ko paper iztukatuan (xehetasun gehiagorako, ikus ***3. taula***).

MAILA	FITXA MOTA	2025-1	2025-2
B1	Aztertzailearen fitxa	554	243
	Azterketariaren fitxa	977	481
	Elkarrerageneko fitxa	731	344
B2	Aztertzailearen fitxa	1.231	652
	Azterketariaren fitxa	1.766	1.084
	Elkarrerageneko fitxa	1.545	937
C1	Aztertzaile eta azterketariaren fitxa	4.548	3.243
	Elkarrerageneko fitxa (azterketariarena)	1.620	971
	Elkarrerageneko fitxa (aztertzailearena)	724	472
C2	Aztertzaile eta azterketariaren fitxa	538	269
GUZTIRA		**14.234**	**8.696**

3. taula Mintzamen-probetarako fitxen kopuruak, fitxa motaka

Orijinalak PDF formatuan entregatzen dira.

C) Entzumen-probetarako enuntziatuak eta erantzuteko orriak (deialdi irekikoentzat)

Oro har, 90 g-ko Offset papera erabiliko da, A4 tamainakoa, eta 4+1 tintaz inprimatuko dira (erantzuteko orriek 14 digituko barra-kodea izango dute). Enuntziatuen eta erantzuteko orrien orri-kopuruak ***4. taula***n ageri dira.

MAILA	ENUNTZIATUAK	ERANTZUTEKO ORRIAK
B1	4	1
B2	4	1
C1	4	1
C2	2	1

4. taula Entzumen-probetan, enuntziatuen eta erantzuteko orriek dituzten orri-kopuruak (deialdi irekia).

Enuntziatuei dagokienez, maila eta lurralde bakoitzeko fitxategi bat bidaltzen da inprimategira, PDF formatuan. Kolore bakarrean inprimatu eta ertz batean grapatu behar dira, eta mailaka eta lurraldeka paketeetan jarri. Erantzuteko orriei dagokienez, irakurgailu optikoaren bidez irakurtzeko txantiloiak bidaltzen dira inprentara, eta haietan 14 digituko barra-kodeak txertatu (identifikazio-orriak sortzeko datu-basetik lortzen dira kodeak; HABEtik bidaltzen dira, beraz, eginak) eta inprimatu egiten dira.

Erantzuteko orriak dauden kasuan (deialdi irekian, alegia), identifikazio-orriekin grapatzen dira, eta mailaka eta lurraldeka paketeetan jarri.

Enuntziatuen inprimatze-lanak gaindituen aurreikuspenen gainean egiten dira, baina erantzuteko orrien inprimatze-lana oso epe laburrean egin behar da; emaitzak argitaratutakoan bidaltzen dira artxiboak, eta egun gutxiren buruan eginda egon behar du lanak, eta lurralde bakoitzeko egoitzan entregatuta. Idazmen-proben eta irakurmen-proben zuzentze-prozesua amaitzean zehazten da zein izango diren inprimatu beharreko kopuru zehatzak. Erreferentzia modura, ***5. taula***n 2025eko kopuruak jaso ditugu:

	2025-1		2025-2	
MAILA	ENUNTZIATUAK	ERANTZUTEKO ORRIAK	ENUNTZIATUAK	ERANTZUTEKO ORRIAK
B1	470	323	252	164
B2	1.143	866	829	648
C1	1.393	1.141	1.173	920
C2	54	33	41	24
GUZTIRA	**3.060**	**2.363**	**2.295**	**1.756**

5. taula 2025eko 1. eta 2. azterketaldietako entzumen-probetarako inprimatutako enuntziatuen kopuruak (aurreikusiak) eta inprimatutako erantzuteko orrien kopuruak (datu zehatzak).

Bestalde, badira azterketa multzo batzuk fase bakarrean egiten direnak (esate baterako, Buenos Aireskoak —bi urtean behin—), eta, horietarako, material guztia inprimatu behar izaten da hasieratik (bai irakurmen- eta idazmen-probak, bai entzumen- eta mintzamen-probak).

3.2. Digitalizatze-lanak

IRAKURMENA ETA IDAZMENA

Idazmen-proben eta irakurmen-proben egutegia zehaztearekin batera zehazten da azterketariek egindako probak jasotzeko egutegia eta proba horien digitalizazioaren sekuentzia eta epeak.

Proben erantzuteko orriak jaso behar dira aztertokietan (aparte entregatuko dira euskaltegiko ikasleen deialdiko probak (idazmen-probak) eta deialdi irekikoak (idazmen-probak eta irakurmen-probak), lurralde historiko bakoitzeko aztertoki banatan. Aztertokia azterketaldi bakoitza finkatzerakoan zehaztuko baldin bada ere, 2025-1ean Gasteizko Buesa Arenan, Durangoko Landako gunean eta Irungo Ficoban egin dira probok, eta 2025-2an Gasteizko Iradier Arenan, Barakaldoko BECen eta Irungo Ficoban egin dira; enpresak aztertoki horietan jaso behar izan ditu digitalizatu beharreko probak.

Erantzuteko orriak grapatuta daudenez, azterketei grapak kendu eta erantzuteko orriak pdf bihurtu behar dira. Azterketa bakoitzean, bereiz gorde behar ditu HABEk irakurmen-proba eta idazmen-proba. Hortaz, deialdi irekiko azterketa bakoitzetik **2 pdf** sortuko dira; euskaltegietako ikasleen deialdiko azterketa bakoitzetik, berriz, **pdf 1** sortuko da. Hala ere, azterketa berari lotutako dokumentu bakoitzaren izena berdina izango da: 9 digituko barra-kodea (lehen bi digituak urteari dagozkionak; hirugarrena azterketari dagokiona; laugarrena mailari dagokiona; eta, bosgarrenetik bederatzigarrenera, azterketaren beraren kodeari dagokiona).

Digitalizatu beharreko orrialdeak dira deialdi eta maila bakoitzean azterketara aurkeztu diren azterketarien erantzuteko orriak. Kopurua zehazteko, kontuan hartu beharko dira, batetik, matrikulatu eta ez aurkeztutakoenak kendu beharko direla, eta, bestetik, azterketa bakoitzaren erantzuteko orrietako lehen orrialdea ere ez dela digitalizatzen; izan ere lehenengo orrialde hori identifikazio-fitxa bilakatzen da eta probaren hasieran aparte jasotzen da, zer azterketa zer azterketariri egokitu zaion jakiteko eta, hartara, proba horien zuzenketa anonimoa bideratu ahal izateko. 1. azterketaldian, 65.000 orrialde inguru eskaneatu beharko dira (2025ean: 64.176 orrialde izan ziren); 2.ean, berriz, 30.000 orrialde inguru (2025ean: 32.887 orrialde izan ziren).

Enpresak, erantzuteko orriak digitalizatu ahala, dokumentu digital guztiak *.tar* fitxategi batean bildu eta HABEri igorriko dizkio. Digitalizatutako dokumentuok bere aplikazio informatikora igoko ditu HABEk, lehenik eta behin aztertzaileek probak zuzendu ditzaten, eta, gero, azterketariek euren proben lekukotza izan dezaten.

Prozesu horietan zehar suerta daitekeen edozein gorabehera tarteko (dokumenturen bat behar den moduan eskaneatuta ez egotea, egindako azterketa bat/orrialde bat digitalizatuta ez egotea…) digitalizatzen duen enpresak paperean jasotako dokumentazioaren artxibatze-modu bat antolatu izan behar du, edozein bilaketa edo dokumentu jakin baten lokalizazioa erraz eta bizkor bideratu ahal izateko. Behin emaitzen argitarapena bukatutakoan, paperezko euskarri ordenatu hori HABEren esku utziko du, erreklamazioen edo gora-jotzeen prozesuetan dagozkion espedienteak osatzeko unean azterketarien proben jatorrizko dokumentuak erraz antolatzeko modua izateko.

ENTZUMENA

Behin deialdi irekiko entzumen-probak eginda, entzumen-proben erantzuteko orriak helaraziko zaizkio enpresari, horiek digitalizatu eta *.tar* luzapeneko fitxategi batean digitalizatuta aurkez diezazkion HABEri. Irakurmen-proben eta idazmen-proben fitxategi-izenekin egiten den antzeko moduan, azterketari loturiko 14 digituko kodea baliatuko da *pdf* bakoitza izendatzeko. Kasu horretan, irakurmen-proban bezala, erantzuteko orria bakarra izango da proba bakoitzeko.

3.3. Irakurgailu optikoa (deialdi irekia)

IRAKURMEN-PROBA

Irakurmen-probako emaitzak automatikoki irakurri behar dira irakurgailu optiko batez, baita zuzendu ere. Zuzenketa horiek gauzatzeko, HABEk, behin azterketak amaitutakoan, maila bakoitzeko eredu bakoitzaren emaitza zuzenak emango dizkio esleipendunari, eta horrek azterketa bakoitza osatzen duten ariketen emaitzak entregatu beharko ditu, zuzenduta (ariketa bakoitzeko puntuazio partziala eta azterketa osoaren puntuazio osoa kalkulatuta), XML formatuko fitxategietan, egitura honekin:

```
<irakurmen-proba>
        <ikasturtea>20242025</ikasturtea>
        <azterketaldia>2</azterketaldia>
        <maila>C1</maila>

        <azterketa>
                <azterketa-kodea>2523-55199</azterketa-kodea>
                <eredua>2</eredua>
                <kalifikazioa>14</kalifikazioa>
                <guztizkoa>20</guztizkoa>
```

```
                <ekoizpena>
                    <ariketa>
                        <irak_01>A</irak_01><zuz_01>A</zuz_01>
                        <irak_02>A</irak_02><zuz_02>B</zuz_02>
                        <irak_03>C</irak_03><zuz_03>C</zuz_03>
                        …
                        <kalifikazio_partziala>4</kalifikazio_partziala>
                        <guztizko_partziala>6</guztizko_partziala>
                    </ariketa>
                    <ariketa>
                        …
                    </ariketa>
                    …
                </ekoizpena>
            </azterketa>
            <azterketa>
                …
            </azterketa>
            …
        </irakurmen-proba>
```

Eskuarki, txanda (eta, beraz, eredu) bakarra izaten da maila eta deialdi bakoitzean, eta, beraz, maila/deialdi bakoitzeko azterketa guztiak emaitza zuzenen txantiloi bera erabiliz zuzendu ohi dira; hala ere, zenbaitetan, maila/deialdi batean bi txanda ere egon daitezke (eta, beraz, bi eredu desberdin), eta emaitza zuzenen bi txantiloi desberdin leudeke. Erantzun-orrietan, gainera, eredua markatzeko koadro bat ere agertu beharko da, azterketariaren eredu-zenbakia ager dadin.

Garrantzitsua da nabarmentzea irakurmen-proban lortutako kalifikazioaren arabera zuzenduko direla (ala ez) idazmen-probak deialdi irekian. Hortaz, deialdi irekian, idazmen-probak zuzentzeko banatu baino lehen egin beharreko lana da emaitzak irakurgailu optikoaz irakurri eta zuzentzearena. Behin azterketa amaitutakoan emango dizkio HABEk enpresa esleipendunari zuzenketa-lanak egiteko emaitza zuzenak, lastertasuna bermatuko duen formatu batean (esleipendunarekin adosteko): formatu jakineko *txt* fitxategi batean, *0. azterketa* balitz bezala (azterketari batek bete izan balu bezala)...

ENTZUMEN-PROBA

Era berean, entzumen-probako emaitzak ere automatikoki irakurri behar dira irakurgailu optiko batez, baita zuzendu ere. Irakurmen-probaren era berean, HABEk maila bakoitzeko eredu bakoitzaren emaitzak helaraziko dizkio digitalizazio-enpresari behin azterketa amaitutakoan, eta enpresak XML formatuan bueltatu beharko ditu emaitza guztiak, zuzenduta, irakurmenerako erabili den antzeko formatuarekin (<irakurmen-proba> etiketaren ordez <entzumen-proba> jarrita eta <irak_XX> etiketaren ordez <entz_XX> jarrita).

Entzumen-probaren kasuan, kalifikazioen XML fitxategia ez da irakurmen-probaren ondoren bezain azkar entregatu behar; izan ere, mintzamen-proba berdin-berdin egiten da, edozein dela ere entzumen-probaren emaitza.

6. taulan, 2025ean irakurmen-proba eta entzumen-proba egin dutenen kopuruak ageri dira (deialdi irekia), urteko bi azterketaldietan.

		1. azterketaldia	2. azterketaldia
IRAKURMEN-PROBA	B1	497	215
	B2	1.561	858
	C1	3.141	1.936
	C2	161	108
	GUZTIRA	**5.360**	**3.117**
ENTZUMEN-PROBA	B1	323	164
	B2	866	648
	C1	1.141	920
	C2	33	24
	GUZTIRA	**2.363**	**1.756**

6. taula Deialdi irekian, irakurmen-probarako eta entzumen-probarako deitutako azterketarien kopuruak (irakurgailu optikorako), 2025eko bi azterketaldietan.

4.- LANEN EGUTEGIA:

4.1- Inprimatze-lanak

2026-1

Idazmen-probak **apirilaren 13an** entregatuko dizkio HABEk inprentari matrikulazio aurreikuspenekin batera. Behin matrikulazio-epea amaitutakoan, **apirilaren 15 inguruan** jakinaraziko ditu HABEk behin-behineko kopuruak. Inprentak lana hiru lurraldeetan entregatu beharko du **apirilaren 30** inguruan.
Mintzamen-proben fitxak **ekainaren 1ean** entregatuko dizkio HABEk inprentari, eta inprentak **ekainaren 19an** entregatuko dizkio HABEri (lurralde bakoitzari, dagokion zatia).

Mintzamen-probetako identifikazio-orrien eta deialdi irekiko entzumen-proben datu-basea, HABEk **ekainaren 12an** bidaliko dizkio inprentari, eta inprentak **ekainaren 19an** entregatu beharko ditu egoitza bakoitzean.

2026-2

Idazmen-probak **irailaren 11n** entregatuko dizkio HABEk inprentari eta inprentak lana hiru lurraldeetan entregatu beharko du **irailaren 25erako**.

Mintzamen-proben fitxak HABEk entregatuko dizkio inprentari **urriaren 23an**, eta inprentak entregatuko dizkio HABEri, egoitza bakoitzean, **azaroaren 19an**.

Mintzamen-probetako identifikazio-orrien eta deialdi irekiko entzumen-proben datu-basea, HABEk **azaroaren 11n** bidaliko dizkio inprentari, eta inprentak **azaroaren 19an** entregatu beharko ditu egoitza bakoitzean.

HABE

4.2. Digitalizatze-lanak

2026-1

Idazmen-proben eta irakurmen-proben erantzuteko orriak **maiatzaren 9an** jasoko ditu enpresak, egun horietako azkeneko probak bukatu eta ordu erdiko tartean, lurralde bakoitzeko aztertokian. Lehendabizi, euskaltegietako ikasleen deialdikoen erantzuteko orriak digitalizatu eta HABEren eskura jarri beharko ditu enpresa esleipendunak, probak jaso eta bigarren lanegunaren eguerdirako (**maiatzaren 12an**). Gainerako proba guztiak (deialdi irekiko irakurmen-probak —eta haien emaitzak— eta idazmen-probak, probak jaso eta laugarren laneguneko eguerdirako entregatu beharko ditu beranduenez ere (**maiatzaren 14an**).

Deialdi irekiko entzumen-probak bi asteburutan egiten direnez, asteburu bakoitzeko saioa amaitu eta handik bi lanegunetara helaraziko zaizkio entzumen-proben erantzuteko orriak enpresari, baita erabiliko den eredu bakoitza eta haren emaitza zuzenak ere (**ekainaren 30ean** lehen asteburukoak; **uztailaren 7an**, bigarrenekoak). Bi laneguneko epean, entzumen-proba horien pdf-ak eta emaitzen XML fitxategiak helarazi beharko dizkio enpresak HABEri (**uztailaren 2an** lehen asteburukoak; **uztailaren 9an**, bigarrenekoak).

2026-2

Idazmen- eta irakurmen-proben erantzuteko orriak **urriaren 3an** jasoko ditu enpresak, egun horietako azkeneko probak bukatu eta ordu erdiko tartean, lurralde bakoitzeko aztertokian. Lehendabizi, euskaltegietako ikasleen deialdikoen erantzuteko orriak digitalizatu eta HABEren eskura jarri beharko du enpresa esleipendunak, probak jaso eta bigarren lanegunaren eguerdirako (**urriaren 6an**). Gainerako proba guztiak (deialdi irekiko irakurmen-probak —eta haien emaitzak— eta idazmen-probak, probak jaso eta laugarren laneguneko eguerdirako entregatu beharko ditu beranduenez ere (**urriaren 8an**).

Deialdi irekiko entzumen-probak bi asteburutan egiten direnez, asteburu bakoitzeko saioa amaitu eta handik bi lanegunetara helaraziko zaizkio entzumen-proben erantzuteko orriak enpresari, baita erabiliko den eredu bakoitza eta haren emaitza zuzenak ere (**abenduaren 1ean** lehen asteburukoak; **abenduaren 9-10ean**, bigarrenekoak). Bi laneguneko epean, entzumen-proba horien pdf-ak eta emaitzen XML fitxategiak helarazi beharko dizkio enpresak HABEri (**abenduaren 3an** lehen asteburukoak; **abenduaren 11-12an**, bigarrenekoak).

4.3. Irakurgailu optikoko lanak (deialdi irekia)

Kontratua hastearekin batera, lizitazioak iraun bitartean irakurmen-probetan eta entzumen-probetan irakurgailu optikorako erabiliko diren txantiloi guztiak entregatuko dizkio HABEk enpresari, PDF formatuan. Baliteke txantiloietan aldaketaren bat egotea noizbait, eta txantiloi berriak daudela aurretiaz jakinarazi beharko du HABEk, behar beste denboraz.

2026-1

Irakurmen-proben emaitzen XML fitxategien entrega deialdi irekirako digitalizatutako azterketekin batera egingo da (beranduenez ere, **maiatzaren 14an**). Hala, bosgarren lanegunean (**maiatzaren 15ean**) azterketa guzti-guztiak aztertzaileen artean banatuta izateko aukera izango du HABEk.

Entzumen-probak bi asteburutan egingo direnez, kalifikazioen XML fitxategiak entregatzeko bi data egongo dira: lehen asteburuan, **uztailaren 2rako**; bigarrenean, berriz, **uztailaren 9rako**.

2026-2

Irakurmen-proben emaitzen XML fitxategien entrega deialdi irekirako digitalizatutako azterketekin batera egingo da (beranduenez ere, **urriaren 8an**). Hala, bosgarren lanegunean (**urriaren 9an**) azterketa guzti-guztiak aztertzaileen artean banatuta izateko aukera izango du HABEk.

Entzumen-probak bi asteburutan egingo direnez, kalifikazioen XML fitxategiak entregatzeko bi data egongo dira: lehen asteburuan, **abenduaren 3an**; bigarrenean, berriz, **abenduaren 10erako**.

Adierazitako datak 2026rako izanik ere, hurrengo aldietarako datak eta denbora-tarteak antzekoak izango direla aurreikusten da. Hala ere, data horiek, 2026koak barne, aldatu ahal izango ditu administrazio kontratatzaileak, eta kasu horretan antzeko denbora-tarteak mantentzen saiatuko da.

Destinoak edo entrega-lekuak, halaber, lizitazio-iragarkia argitaratzen den egunean aurreikusitakoak dira. Hala ere, aldatu ahal izango dira, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan badaude.

5.- KONTRATAZIOA-ORGANOA

HABEren zuzendari nagusia da HABEren egiaztatzegintzako proben inprimatze-lanen, digitalizatze-lanen eta irakurgailu optikoko lanen kontratazio-organoa.

6.- AURREKONTUA

Egin beharreko lanen kopuruak azterketaldi bakoitzeko matrikulazio-aldia amaitutakoan zehaztuko direnez, aurrekontua aleko egitea eskatzen da (lana egiten den unean indarrean dagoen BEZa gehitu beharko zaio horri). Erreferentzia gisa, 2025eko kopuruak jarri dira atal honetako tauletan 2026rako, baina kopuru horiek gutxi gorabeherakoak dira, eta ez dira inola ere lotesleak, azterketaldi bakoitzean aurkezten den azterketari-kopurua aldakorra izaten baita (beti ere, goranzko joera orokor batez).

6.1.- Prezioa zehazteko sistema: prezio unitarioak

Honako prezio unitario maximo hauek (25 prezio unitario daude) ezingo dira gainditu (BEZik gabe):

a) Inprimatze-lanak

Idazmeneko eta irakurmeneko enuntziatuak eta erantzuteko orriak inprimatzea:

1. azterketaldia	Prezioak (€)	Ale-kopurua	Guztira (€)
1) B1 ikasleen deialdia	**0,817**	1.294	1.057,19
2) B2 ikasleen deialdia	**0,609**	3.196	1.946,36
3) C1 ikasleen deialdia	**0,581**	6.186	3.594,06
4) C2 ikasleen deialdia	**4,004**	677	2.710,70

HABE

5) B1 Irekia	**2,196**	497	1.091,41
6) B2 Irekia	**1,336**	1.561	2.085,49
7) C1 Irekia	**0,864**	3.141	2.713,82
8) C2 Irekia	**6,407**	161	1.031,52
Guztira		**16.713**	**16.230,55**

2. azterketaldia	Prezioak	Ale-kopurua	Guztira (€)
9) B1 Itxia	**1,818**	331	601,75
10) B2 Itxia	**0,993**	1.257	1.248,20
11) C1 Itxia	**0,752**	3.467	2.607,18
12) C2 Itxia	**4,620**	332	1.533,84
13) B1 Irekia	**3,590**	215	771,85
14) B2 Irekia	**1,753**	858	1.504,07
15) C1 Irekia	**1,091**	1.936	2.112,17
16) C2 Irekia	**7,228**	108	780,62
Guztira		**8.504**	**11.159,68**

Azalpen-orriak, identifikazio-orriak, mintzamen-probetako fitxak, eta deialdi irekiko entzumen-probako erantzuteko orriak eta enuntziatuak inprimatzea:

	Prezioa (€)	1. azterk.	2. azterk.	Azterketaldi bietan	Guztira (€)
17) Azalpen-orriak	0,10 € aleko	16.713	8.504	25.217	2.521,70
18) Identifikazio-orriak	0,10 € aleko	8.689	4.791	13.480	1.348,00
19) Mintzamen probako fitxak	0,25 € aleko	14.234	8.696	22.930	5.732,50
20) Entzumen-probako enuntziatuak B1 eta B2	0,29 € aleko	1.613	1.081	2.694	781,26
21) Entzumen-probako enuntziatuak C1 eta C2	0,33 € aleko	1.447	1.214	2.661	878,13
22) Entzumen-probako erantzuteko orria	0,25 € aleko	2.363	1.756	4.119	1.029,75
Guztira					**12.291,34**

1) eta 17) bitarteko kontzeptuek idatzizko probei dagozkie, eta aurreikusitako kopuruekin jokatzen da azterketari-kopuru errealekin baino (oso epe estua izaten baita matrikula-aldiaren amaieraren eta azterketaren artean). Horrenbestez, aurreikusitako kopuruak % 15 handiagotzen dira, matrikuletan gerta daitekeen edozein igoerari aurre egin ahal izateko. Adibidez, 2025eko datuetan, 25.217 azterketari aurkeztu ziren guztira, eta hala jartzen du 17) kontzeptuan, baina benetan inprimatu zen orrialde kopurua 30.134 izan zen (ia % 20 inguru gehiago).

Ehuneko gehigarri hori lurralde-arduradunek balioetsiko dute azterketaldi bakoitzean.

b) Digitalizazio-lanak

	Prezioa (€)	Unitateak	Guztira (€)
23) Azterketak digitalizatzea	0,22 € orrialdeko	97.062 orrialde	21.353,64
24) Probak aztertokietan jasotzea	600 € jasoaldi bakoitzeko	6	3.600,00
Guztira			24.953,64

c) Irakurgailu optiko lanak (deialdi irekia)

	Prezioa (€)	Unitateak	Guztira (€)
25) Azterketaren emaitzak irakurri eta emaitzak kalkulatzea	0,25 € orrialdeko	11.466 orrialde	2.866,5
GUZTIRA			**67.501,71**

Kontuan hartu beharko da, halaber, urtez urte egon daitekeen azterketari-kopuruaren igoera ere. 2023tik 2024ra, % 7 inguru igo zen matrikulazioa; 2024tik 2025era, % 6 inguru.

6.2.- Lizitazioaren oinarriko aurrekontua

Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **300.080 eurokoa** da, % 21eko BEZa barne dela, eta honako urteko ordainketa hauei egotziko zaie:

- 2026. urtea: 121.000 euro (150.040 euro, BEZa barne).
- 2027. urtea: 121.000 euro (150.040 euro, BEZa barne).

Aurrekontu-aplikazioa: 4.47130.24200-2019/004486

6.3.- Kontratuaren balio zenbatetsia

Kontratuaren balio zenbatetsia **484.000,00 eurokoa** da, BEZa gabe (bi urteko luzapenerako aukera jasota). Urteko 121.000 euro.

7.- MATERIALAK ISILPEAN GORDE BEHARRA

Zerbitzuaren hartzaileak inprimatuko diren azterketen edukia eta emaitzak isilpean gordetzea ziurtatu beharko du, bai inprimatzeko garaian, bai aztertokietarako garraio-lanetan.